B.- Ordu horiek igarota erregimen egonkorra dago, eta gainazalen eta inguruaren arteko konbekzio-koefizientea kalkulatu da. Energia termikoa konbekzioz soilik transmititzen da, eta jariakina solidoaren gainazalekiko paralelo mugitzen da, norabide horretan luzera 0,5 m izanik. Kalkula ezazu jariakinaren abiadurak zenbatekoa izan behar duen, esandako guztia bete dadin, eta zer dentsitate duen ingururantz solidoaren gainazal bakoitzetik doan potentzia termikoak (kcal/m<sup>2</sup> h-tan).

DATUAK:

- Solidoa:

$$c_p = 0,38 \text{ kcal/kg } ^\circ\text{C}$$

$$\rho = 1270 \text{ kg/m}_3$$

$$\lambda = 0,20 \text{ kcal/m h}^\circ\text{C}$$

- Ingurua:

$\theta$ (°C)	$\rho$ (kg/m <sup>3</sup> )	$\mu$ (kg/h m)	$\lambda$ (kcal/h m °C)	$c_p$ (kcal/kg °C)
10	1,25	0,063	0,021	0,24
25	1,17	0,066	0,022	0,24
60	1,05	0,072	0,024	0,24
204	0,73	0,093	0,033	0,24
322	0,58	0,108	0,040	0,25

### **Eroankortasun termikoa 10**

Labe baten hormak bi geruza ditu, eta ezaugarriak hauek ditu:

A horma: 1 m-ko lodiera, kanpoarekiko kontaktuan, eta  $\lambda = 40 \text{ W/m}^\circ\text{C}$ .

B horma: A-ren eskuinaldean, 2 m-ko lodiera, eta  $\lambda = 20 \text{ W/m}^\circ\text{C}$ . Bestalde, guztiz isolatua dago eta barruan energia-iturria dauka:

$$\dot{q} = 4 - 2 \cdot x \text{ kW/m}^3$$

Non  $x$  bi hormen artekoan hasten baita eta positiboa baita B-rentzat.

Erregimen egonkorrean A hormaren gainazaleko tenperatura kanpo-azalean  $45^\circ\text{C}$  da.

1. Osa itzazu bi hormen eremu termikoen ekuazioak.
2. Marraztu eremu horiek, muturreko tenperaturak zehaztuz.
3. Kalkulatu A hormatik irteten den bero-fluxua ( $\text{W/m}^2$ ).

# **KONBEKZIOA**

---

---



## Konbekzioa 1

20 cm-ko diametroan probeta esferiko batek barruan erresistentzia elektrikoak ditu, uniformeki sakabanatuak. Probeta hori dimentsio handiko haize-tunel batean sartzen da, eta probetaren kontra jotzen duen haize-korrontea 20 °C-an dago. Probetaren hormen tenperatura konstantea da, 600 °C-koa, eta, erregimen egonkorra lortuta, esferatik ihes egiten duen potentzia 2 kW dela ikusten da. Erradiazioz transmititzen den beroa horren % 25 dela kontuan hartuz, kalkulatu itzazu hauek:

1. Saioen bidez lortzen den konbekziozko bero-transmisioaren batez besteko koefizientea ( $W/m^2\text{°C-tan}$ ).
2. Koefiziente horri eusteko beharrezkoa den airearen abiadura (m/s).
3. Emaniko tenperaturei eutsita, abiadura hirukoiztuz gero konbekzioz aterako litzatekeen potentzia.

Orain lehengo probeta esferikoa beste batez ordeztzen dugu. Azkeneko hori laua da, eta haren zabalera lehengoaren diametroaren bestekoa da, oso luzea. Bai gainazaleko tenperatura bai airearena lehengoak dira. Probeta berria tunelean ipintzen dugu, airea probetaren luzerarekiko paralelo joateko moduan eta airearen abiadura 2. atalekoa izanik. Kalkulatu hauek:

4. Distantzia kritikoaren bikoitzari dagokion batez besteko koefizientea ( $W/m^2\text{°C}$ ).
5. Luzera horretan konbekzioz erauzten den potentzia termikoa (W).

**OHARRA:** Emaniko adierazpenak eta datuak **SOILIK** erabili.

Airearen propietateak

T(°C)	$\nu \cdot 10^6 (\text{m}^2/\text{s})$	$\lambda \cdot 10^3 (\text{W}/\text{m}^{\circ}\text{C})$	Pr
20	15,09	25,64	0,713
310	49,12	44,61	0,698
600	95,33	60,94	0,705

**OHARRAK**

- Probeta lauan ertz-efektuak guztiz baztergarriak dira.

$$\overline{Nu}_L = 0,664 \cdot Re_L^{0,5} \cdot Pr^{1/3} ; \text{ erregimen laminarrerako } Re_{cr} = 500000$$

$$\overline{Nu}_L = (0,337 \cdot Re_L^{0,8} - 871) \cdot Pr^{1/3} ; \text{ erregimen mistorako}$$

$$T_f = \frac{T_s + T_\infty}{2}$$

- Probeta esferikorako adierazpena:

$$\overline{Nu}_D = 2 + (0,4 \cdot Re_D^{1/2} + 0,06 \cdot Re_D^{2/3}) \cdot Pr^{0,4} \cdot \left(\frac{\mu_\infty}{\mu_s}\right)^{1/4}$$

$$\theta_{\text{karakteristikoa}} = \theta_{\text{airea}} \text{ hartuz}$$

## **Konbekzioa 2**

A) 1 m x 1 m-ko plaka baten lodiera 5,1 mm da, eta bertikal jarrita dago. Ezkerreko aldea guztiz isolatua dago, eta eskuinaldean paraleloan aire beroa 140 °C-an doa, airearen abiadura 15 m/s dela.

Airearen propietate termikoak temperatura karakteristikoan hauexek dira:

$$\rho = 0,796 \text{ kg/m}^3 \quad \mu = 24,63 \times 10^{-6} \text{ kg/m s} \quad \lambda = 35,89 \times 10^{-3} \text{ W/m}^\circ\text{C} \quad \text{Pr} = 0,7$$

Erregimen egonkorra lortuta eta ertz-efektuak baztertuz gero, kalkula itzazu hauek:

1. Konbekziozko beroaren transmisiorako koefizientea.
2. Plakak  $1,7 \times 10^5 \text{ W/m}^3$ -ko energia-iturri uniformeak daukala jakinik, airearekin kontaktuan dagoen plakaren gainazalaren tenperatura.

B) Plaka osoa 2. atalean eskatzen den tenperaturan dagoenean, ezkerreko isolatzailea kentzen zaio. Energia-iturria desagertu egiten da, eta plaka bera ur hotzetan, 20 °C-an eta 3 bar-ean, sartzen da. Kalkulatu:

3. Konbekziozko koefiziente berria, kontuan izanda filmeko tenperatura plakaren eta uraren tenperatura berrien baturaren erdia dela.

OHARRA: Kasu bakoitzean adierazpenik egokiena erabili:

$$\text{Airerako: } \overline{Nu}_D = \frac{0,6774 \cdot Re_L^{1/2} \cdot Pr^{1/3}}{\left[ 1 + \left( \frac{0,468}{Pr} \right)^{2/3} \right]^{1/4}} ; Re_D \leq 5 \cdot 10^5 \text{ denean}$$

$$\text{Uretarako: } \overline{Nu}_L = C \cdot (Gr \cdot Pr)^m ; Gr \cdot Pr \leq 1 \cdot 10^{10} \Rightarrow C = 0,20; m = 1/4$$

$$Gr \cdot Pr \geq 1 \cdot 10^{10} \Rightarrow C = 0,13; m = 1/3$$

Ur asearen propietate termikoak tauletan begiratu. ( $\beta = 209 \cdot 10^{-6} \text{ K}^{-1}$ )

### **Konbekzioa 3**

Korrontearen kontra lan egiten duen bero-trukagailu batean, 2988 kg olio/h hoztu egiten dira 170 °C-tik 110 °C-ra. Horretarako, 14 °C-tik 80 °C-ra berotzen da ura. Trukagailua bi tutu zentrokidez osatua dago: barrukoa kobrezkoa da, eta ura dauka barruan. Barruko tutu horren diametroa 30 mm da, eta lodiera baztergarria. Olioaren eta barruko tutu horren arteko konbekzio-koefizientea 40 kW/m<sup>2</sup>°C bada, kalkula itzazu hauek:

1. Uraren eta barruko hodiaren hormaren arteko konbekzio-koefizientea.
2. Trukagailuaren luzera, kanpoaldetik guztiz isolatua badago.
2. ataleko luzera finkatuta, orain lan-baldintzak aldatuko ditugu. Uraren sarrera-tenperatura eta emaria berdina dira, baita olioaren sarrera-tenperatura. Olioaren emaria orain erdia da, eta bi jariakinen propietate fisikoak eta konbekzio-koefizienteak lehengo berberak dira. Kalkulatu olioaren irteera-tenperatura berria.

OHARRA: Olioaren bero espezifikoa 2350 J/kgK da.

### **Konbekzioa 4**

Bero-trukagailu batetik irteten den airea 0,12 m-ko diametroko hodi batera (lodiera baztergarria) doa. Airea 127 °C-an sartzen da, eta 27 °C-an irteten, abiadura 2,66 m/s izanik. Tutuaren kanpoaldeak hegala ditu, eta, horren ondorioz, kanpoko azalera barrukoa baino hiru aldiz handiagoa da. Kanpoko inguruan airea 0 °C-an badago eta barruko zein kanpoko presioa 101325 Pa badira, erantzun honako galdera hauei (emaitzak Nazioarteko Sistemako unitateetan adierazi):

1. Hodiaren eta kanpoko inguruaren artean trukutzen den bero-fluxua.
2. Irteera-sekzioa aztertutik, termikoki egonkor dagoela konturatzen gara, eta kanpoko gainazalaren eta airearen arteko konbekzio-koefizientea 4 W/m<sup>2</sup>K da. Hala, kalkula ezazu sekzio horretan hodiaren barruko gainazalaren tenperatura. Kasu honetan, kanpoko azalak hegala ez duela joko dugu.
3. Lor ezazu barrutik doan jariakinaren eta kanpoko inguruaren artean trukaturako bero-fluxua baldintza hauetan: hodiaren diametroa berdina da; hodiaren luzera, 15 m; posizioa horizontala da; eta kanpoko gainazalak ez du hegala. Tutuaren gainazalaren tenperatura uniforme da, 20 °C, eta kanpoan airea 0 °C-an dago.

OHARRA: Beharrezko den kasu guztietan hodia oso luzea dela joko da.



### **Konbekzioa 5**

Tutuz eginiko bero-trukagailu baten jariakinak ura eta olio dira. Olio tutuen barruan zehar doa, eta tutuetan lau igaroaldi eta karkasetan bi egiten ditu. 4540 kg olio/h 15 °C-tik 65 °C-ra berotzen da, eta ura 95 °C-an sartzen da. Uraren emaria 3600 kg/h da. Olioaren bero espezifikoa 1,7 kJ/kg·K bada eta bero-transmisorako koefiziente orokorra 540 W/m<sup>2</sup>K bada, kalkula ezazu beharrezko den azalera.

### **Konbekzioa 6**

Korrante gurutzatuak dituen bero-trukagailu bat erabiltzen da ura hozteko 99 °C-tik 60 °C-ra. Horretarako airea 25 °C-an erabiltzen da. Uraren eta airearen masa-emariak 140 kg/h eta 840 kg/h badira, hurrenez hurren, eta bero-transmisorako koefiziente orokorra 80 W/m<sup>2</sup>K bada, kalkula itzazu:

1. Beharrezko azalera
2. Trukagailuaren efikazia

## **Konbekzioa 7**

Zilindro horizontal bat dugu, 1 m-ko luzera eta 50 mm-ko diametrodun muturrak dituena, tenperatura konstantean egonik. Materialaren eroankortasun termikoa 400 W/mK da, eta bero-iturria 480 kW/m<sup>3</sup>-koa da.

Zilindroarekiko perpendikular doan airea 20 °C-an dugu, eta konbekziozko bero-transmisiorako koefizientea 30 W/m<sup>2</sup>K da.

Erregimen egonkorrean egindako neurketen arabera erdiko sekzioan (x=0) lortutako tenperatura maximoa 120 °C da.

Hauek eskatzen dira:

1. Planteatu eta ebatzi zilindroaren tenperatura-eremuaren ekuazio diferentziala. Tenperatura  $x$ -rekiko funtzioa baino ez da, eta jatorria zilindroaren erdian dago.
2. Kalkulatu zilindroaren muturren tenperaturak.
3. Lortu zilindroan zeharreko tenperaturaren batez bestekoa.
4. Zein izan behar du haizearen abiadurak?
5. Zer gertatzen da zilindroaren muturretan?

**OHARRA:** Zeharkako konbekzio behartua honako adierazpen hau erabilia kalkula daiteke:

$$\overline{Nu}_D = 0,193 \cdot Re_D^{0,618} \cdot Pr^{1/3}$$

4000 < Re < 40000 tartean egon behar. Filmeko tenperatura gainazalarenaren eta jariakinarenaren arteko batezbestekoa da.

## **Konbekzioa 8**

Dimentsio handiko lantegi baten erdian wolframiozko hari bat bertikal jarri da. Lantegiaren hormak beltzak dira. Hariaren luzera 1 m-koa da; diametroa 0,5 mm-koa, eta argindarrari konektatuta dago.

Haizagailu batek airea perpendikular pasarazten du, 25 °C-an eta 30 m/s-an. Erregimen egonkorrean hariaren gainazalaren temperatura 1200 °C da. Erradiazioz erazten den bero-potentzia osoaren % 45 bada:

1. Kalkulatu hariak ematen duen potentzia termiko osoa (W-tan).

Haizagailua gelditzen dugu, eta haria horizontal jartzen da. Berrero erregimen egonkorra lortu arte itxaroten dugu, alegia, hariaren gainazaleko temperatura lehengo bera izan arte. Erradiazioaren ehunekoa lehengoa dela kontuan hartuz, eta lantegiko temperatura 25 °C bada:

2. Lortu baldintza berrietan hariak erazten duen potentzia termikoa (W-tan).

Amaitzeko, altzairuzko zilindro bat jartzen da horizontal (1 m-ko luzera duena). Kanpoko diametroa 40 cm da, eta lodiera 1 cm. Barruan hari zentrokidea sartzen da, beti argindarrari konektatuta. Zilindroen bi muturrak ondo ixten dira eta hutsa egiten da.

Erregimen egonkorrean hornidura elektrikoa 2 kW-koa dela dakigu, eta altzairuzko zilindroaren kanpoko gainazaleraren temperatura 201 °C. Lantegiko airearen temperatura betikoa da.

3. Lortu lantegiari konbekzioz eta erradiazioz emaniko bero-potentzia.

## **Konbekzioa 9**

Lantegi bat 120 °C-an dagoen ur gainsez hornitzeko asmoz, galdaratik ateratzen da altzairuzko hodi bat. Hodiaren kanpoko diametroa 102 mm da, lodiera 3,5 mm, eta eroankortasun termikoa 42,8 W/mK. Hodiaren barruko uraren abiadura 1 m/s-koa da.

Galerak txikitzeko beirazko zuntzez babestu da hodia, zeinak 20 mm-ko lodiera eta 0,0468 W/mK-ko eroankortasun termikoa baititu.

Kanpoan haizeak 10 km/h-ko abiaduran jotzen du, -10 °C-an eta hodiarekiko perpendikular. Zenbatekoak dira bero-galerak metro linealeko?

OHARRA: Emaniko adierazpenak eta datuak **SOILIK** erabili.

Uraren propietateak, 120 °C-an:

$$\rho = 942,8 \text{ kg/m}^3 \quad \lambda = 0,6833 \text{ W/m}^\circ\text{C} \quad \mu = 0,2321 \cdot 10^{-3} \text{ kg/m s} \quad \text{Pr} = 1,44$$

Airearen propietateak:

T(°C)	$\rho$ (kg/m <sup>3</sup> )	$\lambda$ (W/m°C)	$\mu$ (kg/m s)	Pr
-10	1,3414	23,29 10 <sup>-3</sup>	16,71 10 <sup>-6</sup>	0,7210
-3,875	1,3113	23,77 10 <sup>-3</sup>	17,0110 <sup>-6</sup>	0,7192
2,25	1,2923	24,08 10 <sup>-3</sup>	17,20 10 <sup>-6</sup>	0,7175

Barrurako konbekziorako adierazpena:

- Konbekzio behartua  $\overline{Nu}_D = 0,023 \cdot Re_D^{0,8} \cdot Pr^{0,3}$ ;  $Re_D > 10000$  eta  $0,7 < Pr < 160$  direnean

Kanporako konbekziorako adierazpenak:

- Konbekzio behartua  $\overline{Nu}_D = 0,26 \cdot Re_D^{0,6} \cdot Pr^{0,37} \cdot \left(\frac{Pr_0}{Pr_s}\right)^{1/4}$ ;  $1 < Re_D < 10^6$  eta  $0,7 < Pr < 500$

- Konbekzio naturala  $\overline{Nu}_D = 0,41 \cdot (Gr \cdot Pr)^{1/4}$ ;  $1700 < Gr \cdot Pr < 10^8$

Tenperatura hau hartu propietateak kalkulatzeko:  $T_f = \frac{T_s + T_\infty}{2}$

### Konbekzioa 10

Gela baten kanpoko tenperatura 46 °C da. Erregimen egonkorrean barruko tenperatura 20 °C da. Horma bertikala irudian ikusten dena da; hau da, hiru geruzakoa da, eta material bakoitzak eroankortasun termiko hauek ditu:

$$\lambda_1 = 0,50 \text{ kcal/mh}^\circ\text{C} \quad \lambda_2 = 0,045 \text{ kcal/mh}^\circ\text{C} \quad \lambda_3 = 1,20 \text{ kcal/mh}^\circ\text{C}$$

Gelaren barruko airea geldirik dagoela joko dugu, eta kanpokoaren abiadura 2,8 m/s dela. Hormaren altuera 3 m da, eta ertz-efektuak baztergarriak. Kalkula itzazu hauek:

1. Barruko eta kanpoko konbekzio-koefizienteak
2. Horman zeharreko konbekziozko bero-fluxuaren dentsitatea ( $\text{W/m}^2$ )
3. Hormaren barruko tenperatura (sakonera: 0,20 m)

Konbekziorako adierazpenak:

Konbekzio behartua  $Nu = 0,029 \cdot Re^{0,8}$

Konbekzio naturala  $Nu = C \cdot (Gr \cdot Pr)^n$

	<b>Gr · Pr</b>	<b>C</b>	<b>n</b>
laminarra	$10^4 - 10^9$	0,59	1/4
turbulentua	$10^9 - 10^{13}$	0,10	1/3

Bi adierazpenetarako:


Luzera karakteristikoa = Altuera

Erreferentzia-tenperatura = Airearen eta hormaren baturaren erdia

Airearen propietateak:

<b>T(°C)</b>	<b>Y (m<sup>2</sup>/h)</b>	<b>λ (kcal/m°C)</b>	<b>Pr</b>
15,6	$52,81 \times 10^{-3}$	$21,84 \times 10^{-3}$	0,712
26,7	$56,81 \times 10^{-3}$	$22,59 \times 10^{-3}$	0,709
37,8	$60,22 \times 10^{-3}$	$23,33 \times 10^{-3}$	0,706
48,9	$64,05 \times 10^{-3}$	$24,06 \times 10^{-3}$	0,703

Irudia:



# **ERRADIAZIOA + ERREKUNTZA**

---

---




### Erradiazioa + Errekuntza 1

1 m-ko diametroa eta 10 m-ko luzera dituen zilindroa horizontal ipinita daukagu eta barruan hutsa dago. Mutur bat beltza da eta  $727\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an dago; bestearen emisibitatea  $0,9$  da eta  $527\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an dago. Alboko gainazala erregaitza da. Kalkula ezazu gainazal beltzaren eta grisaren arteko bero-trukaketa.

### Erradiazioa + Errekuntza 2

Infinitutzat har daitekeen hodia daukagu, eta sekzioa irudiaren itxurakoa da:



ACD azala grisa da ( $\varepsilon = 0,8$ ) eta  $1277\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an dago.

AB azala erregaitza da.

BFD azala grisa da ( $\varepsilon = 0,7$ ) eta  $927\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an dago.

Barruan dagoena diatermanoa dela kontuan hartuz, kalkulatu bi gainazal grisaren arteko bero-fluxua (metro linealeko).



### **Erradiazioa + Errekuntza 3**


Dimentsio handiko bi plaka gris paraleloren,  $A_1$ -en eta  $A_2$ -ren, artean pantaila mehe bat dago. Plaken emisibitateak 0,7 eta 0,5 dira, hurrenez hurren, eta pantaila babeslearena 0,1 da bi aurpegietan. Erregimen egonkorrean plaken temperaturak  $327\text{ }^\circ\text{C}$  eta  $1127\text{ }^\circ\text{C}$  dira.

Sistema osoa hutsean badago, hauek eskatzen dira:

1. Pantailaren tenperatura
2. Plaken arteko bero-transferentzia
3. Pantaila ipini aurreko eta ondoko beroen arteko erlazioa

### Erradiazioa + Errekuntza 4

Hauxe da luzera handiko bero-trukagailu baten zeharkako sekzioa:



$A_1$  azalaren erradioa 1 m da eta  $1550\text{ }^\circ\text{C}$ -an dago;  $A_2$ -ren erradioa  $0,5\text{ m}$  da eta osorik  $1000\text{ }^\circ\text{C}$ -an dago.

Hiru kasu daude:

A kasua: bi azalak beltzak dira.

B kasua:  $A_1$  grisa ( $\varepsilon_1 = 0,5$ ) da eta  $A_2$  beltza.

C kasua:  $A_1$  grisa ( $\varepsilon_1 = 0,5$ ) da eta  $A_2$  grisa ( $\varepsilon_2 = 0,7$ ).

Kasu guztietan trukaturako beroak kalkulatzeko eskatzen da. Kalkulatu, baita, A eta B kasuen arteko erlazioa eta A-ren eta C-ren artekoa. Erdian dagoena diatermanoa da.

### **Erradiazioa + Errekuntza 5**

Hodi baten sekzioak triangelu aldekidetaren itxura dauka. Barruan airea dago eta azalen tenperaturak uniformeak dira: 40 °C **(1)**, 1400 °C **(2)** eta 1000 °C **(3)**. Bai konbektzioa bai ertz-efektuak baztergarriak dira. Nazioarteko Sisteman lan eginez, eskatzen da:

1. Hiru aurpegiak beltzak badira, **(2)** aurpegiak ematen duen bero-fluxua.
2. Hurrengo aldaketa eginda, kalkulatu ikuspen-faktore berriak. Orain **(1)** azala erdizilindrikoa da (1 m diametroa) eta **(2)** eta **(3)** lehengo berdinak. Zilindroerdia ipintzerakoan, sekziarik handiena ahalbidetzen duena aukeratu da.
3. Bigarren atalean hiru azalak beltzak izanik, **(2)** gainazalak ematen duen bero-fluxua. Tenperaturak lehengoak dira.

### **Erradiazioa + Errekuntza 6**

Erregai baten osagaiak  $C_2H_6$ -a eta  $C_3H_8$ -a dira, erdi bana bolumenean. Erabiltzen den airearen soberakina 1,1 da. Errekuntza ez da osoa, eta erregabeak agertzen dira:

$$V_{CO} = 0,01 \cdot V_{kl}$$

$$V_{H_2} = V_{CO}$$

$$V_{CH_4} = 0,5 \cdot V_{CO}$$

1. Kalkulatu kearen konposizioa.

### **Erradiazioa + Errekuntza 7**

Erregai likido baten konposizioan karbonoa eta hidrogenoa baino ez dira agertzen, eta 1,2 bar-ean erre egiten da. Ondoren, kea hoztu eta  $50\text{ }^\circ\text{C}$ -an kearen ur-lurruna urtzen hasten da.

Jarraian, Orsat aparatua erabiliz, kearen analisi bolumetrikoa egiten da, emaitzak hauexek direla: % 9,3  $CO_2$ , % 30,3  $O_2$  eta % 60,4  $N_2$ .

Kalkula itzazu kearen osagaien presio partzialak.

Zein da C/H erlazioa erregaian?

**Erradiazioa + Errekuntza 8**

A) Bi plaka paralelo (1 eta 2) infinitu ditugu (ikus irudia) eta ezaugarri hauek dituzte:


1 Grisa,  $\varepsilon = 0,5$ ,  $T_1 = 1000$  K

2 Grisa,  $\varepsilon = 0,5$ ,  $T_2 = 300$  K

Kalkulatu erradiazioz trukaturako beroa (bi plaken artean hutsa dago).

B) Bero hori gutxitzeko asmoz, eta  $T_1$  eta  $T_2$  temperaturak berdinak izanik, infinitua den pantaila bat jartzen dugu. Pantaila horren lodiera  $0,1$  m da eta  $\lambda = 10$  W/m °C egiaztatzen da. 3 eta 4 gainazalak grisak dira eta bien emisibitateak  $\varepsilon = 0,1$ .

Planteatu  $T_3$  eta  $T_4$  kalkulatzeko beharrezko diren ekuazioak. Zein da orain haien artean trukaturako beroa?



C) Etanoa airea erabiliz erretzen da eta errekuntza osoa da. Kearen CO<sub>2</sub>-aren proportzioa % 6 izan dadin, zenbat izan behar du airearen soberakin-koefizienteak?

## Erradiazioa + Errekuntza 9

Fuel-olioaren konposizioa pisutan hauxe da: c % 85,9, h % 13,3, o % 0,25; n % 0,25 %; s % 0,3. Presio atmosferikoan sorturiko kean dagoen ur-lurrunaren presioa 0,0861 atm da. Kea hoztu eta gero, oinarri lehorreko azterketa egiten da, eta bi erregabe agertzen dira: % 5 karbono monoxido eta % 2,5 metano.


1. Errekuntza horretan gehiegizko zer aire-koefiziente erabiltzen ari da?

Errekuntza osoa izan dadin, aire estekiometrikoa baino % 10 gehiago erabiltzea erabakitzen da. Kea 1400 °C-an sartzen da irudiko hodian,  $A_R$  gainazal erregogorraren eta  $A_1$  gainazalaren artean, hain zuzen ere. Zirkulua 0,9ko emisibitate duen arrabola da, eta ezin du 800 °C baino tenperatura altuagorik jasan. Arrabolaren diametroa 25 cm da, eta  $A_R$ -en guztiz zentratua dago.  $A_R$  hain handia izanik  $A_1$ -ekiko, gainazal baliokidea ( $A_e$ ) kalkulatzeko behar den  $f$  faktorea 0 dela jotzen dugu. Esferaerdiaren erradio baliokidea  $L = 3,66 \cdot (V/A_1)$  da, non  $V$  keak betetzen duen bolumena baita.

2. Kalkulatu zer potentzia atera behar duen arrabolaren hozte-urak.

Orain kea atera, eta goiko eta beheko gainazalak ( $A_2$ ) 0,8ko emisibitateko gainazal aktibo bihurtzen dira.

3. Zer tenperaturatan egon behar dute goiko eta beheko gainazalek ( $A_2$  gainazala), arrabolari potentzia berdina irits dakion eta tenperaturak 800 °C izaten jarrai dezan? Ez duzue nahitaez ekuazio-sistema ebatzi behar.



Datuak:

Pisu atomikoak:

$$c = 12; h = 1; o = 16; n = 14; s = 32$$

Hottel kurbak:

$$\alpha_{CO_2} = \alpha_C C \left( \frac{T_G}{T_1} \right)^{0.65}$$

$$\alpha_{H_2O} = \alpha_W C' \left( \frac{T_G}{T_1} \right)^{0.45} \quad \Delta \varepsilon = \Delta \alpha = 0.055$$


$$F_{22} = 0.2$$

### **Erradiazioa + Errekuntza 10**

Irudian hodi luze baten sekzioa dugu.  $A_1$  gainazal berotzailea dugu, eta 10 mm-ko diametroa duen hariak da. Gainazal horren emisibitatea 1 da eta 1500 K-ean dago. Gainazal hartzailea  $A_2$  grisa eta 0,6 emisibitadeduna da. Beste horma guztiak erregogorrez eginda daude.

Kalkulatu:

1. Ikuspen-faktore guztiak
2. Beheko azalera ( $A_2$ ) 500 K-ean egon behar badu, hariak ( $A_1$ ) zer potentzia eman behar dion.
3. Erregogorrek daukan tenperatura. Horretarako, joko dugu erregogorrez egindako horma beltza dela eta guztiz isolatua dagoela.



# **AIRE HEZEA + HOZTE-MAKINAK**

---

---





### **Aire hezea + Hozte-makinak 1**

Hasieran 6 °C-an dagoen eta % 30eko hezetasun erlatiboa duen airea girotu nahi dugu. Helburua 20 °C-ko tenperatura eta % 54ko hezetasun erlatiboa lortzea da.

Horretarako lehenengo berotu egiten da, ondoren ur likidoarekin (5 °C-an) nahasi egiten da ase arte, eta, sobera dagoen ur likidoa banandu eta gero, berriro berotzen da.

Sistemara sartzen den aire hezearen kantitatea 0,73 kg/h dela eta presioa 1 atm dela kontuan izanda:

1. Osatu instalazioaren oinarrizko eskema, puntu garrantzitsuenak zehaztuz.
2. Irudikatu gertatzen diren prozesuak Carrier eta Mollier diagrametan, puntu garrantzitsuenak jarritz.
3. Lortu aire lehorraren emaria eta gehitutako ura (kg/h-tan).
4. Kalkulatu berotze-prozesu bakoitzean aireari emandako potentzia (kcal/h-tan).

## **Aire hezea + Hozte-makinak 2**

Hasieran 36 °C-an dagoen eta % 30eko hezetasun erlatiboa duen aire hezea 22 °C-raino hoztu nahi dugu, hezetasun erlatiboari eutsiz. Horretarako hauxe egiten da:

Lehenengo hoztu, ondoren hezetasuna murriztu (entalpia espezifiko konstante dela) 44 °C lortu arte. Berrir hoztu, 14 °C-ko tenperatura eta % 20ko hezetasun erlatiboa lortu arte. Amaitzeko isobaroki beste aire heze batekin nahasi egiten da, lortu nahi dugun airea lortzeko. Aire lehorraren masak bi aireetan berdinak dira.

Guztizko presioa 1 atm dela eta sartzen den aire hezearen kantitatea 0,9 kg/h dela kontuan izanik:

1. Marraztu instalazioaren eskema, eta irudika itzazu Mollier diagrama batean puntu garrantzitsuenak.
2. Lortu nahasketarako erabilitako aire hezearen egoera (h, X) eta bi hozte-prozesuetan ateratako beroa (kcal/kg<sub>Aire Lehor</sub>).
3. Kalkulatu hasieran sartzen den aire lehorraren emaria (kg<sub>Aire Lehor</sub>/h) eta lehortzean kenduriko ur-masa orduko (g<sub>H<sub>2</sub>O</sub>/h)

### **Aire hezea + Hozte-makinak 3**

30 °C-an dagoen 3 kg/s aire heze dugu. Horren ihintz-puntua 23°C-koa da, eta nahi dugu amaieran tenperatura bera (30 °C) izatea baina ihintz-puntua 10 °C izan dadin. Hori lortzeko hau egin behar da: lehenengo hoztu, ondoren lehortu (azkenengo hori prozesu isotermikotzat har daiteke, eta ura ontzi baten batzen da) eta amaitzeko berotu. Prozesu guztia presio atmosferikoan gertatzen dela kontuan harturik:

1. Marraztu instalazioaren eskema eta Mollier irudian puntuak.
2. Lortu airea berotzeko erabiltzen den potentzia (kW-tan) eta lehortze-prozesuan kendutako ura (g/s-tan).

Hozte-instalazio batek R-717 jariakina erabiltzen du hozgarri gisa, eta bi hozte-efektu lortzen ditu: -10 °C eta 0 °C. Lehenengoan 30 kW lortzen da, eta bestean, berriz, 10 kW. Instalazioaren kondentsagailua urez hozten da 1,2 MPa-ean, eta kondentsagailuaren irteeran fluido hozgarria 5 °C azpihoztu egiten da. Ondoren, korrontea banandu egiten da; zati bat espansio-balbula batera doa eta beste zatia beste batera. Balbuletatik korrontek dagozkien lurrungailuetara doaz. Lurrungailu bakoitzetik lurruna lehor ase irteten da, bakoitzari dagokion tenperaturari. Tenperatura txikiko lurrungailutik irteten den jariakina beste lurrungailua dagoen presioraino konprimitzen da. Bi korrontek nahasi egiten dira, eta bero-galerarik gabe, nahastea kondentsagailuak duen presioraino konprimitzen da. Bi konprimagailuen errendimendu adierazia eta mekanikoa, hurrenez hurren, 0,9 eta 0,93 direla kontuan izanda:

3. Marraz itzazu instalazioaren eskema eta P-h irudiko puntu esanguratsuak.
4. Lortu bi bero-trukagailuetako jariakin hozgarriaren emariak, kg/s-tan adierazita.
5. Kalkulatu jariakinaren konpresioan erabiltzen den potentzia (kW-tan) eta kondentsazio-potentzia (kW-tan).

### **Aire hezea + Hozte-makinak 4**

6°C-an dagoen eta % 80 hezetasun erlatiboa duen aire hezea girotu egin behar da. Azkenean, 28°C-an egon behar du. Prozesu guztia 1 atm-n gertatzen da. Irteeran beste baldintza bat bete behar du aire hezeak: ur-lurrun kantitateak 30 kg/h izan behar du. Hori prozesu isobariko batzuen bidez lortzen da:

- A. Erresistentzia elektrikoak erabiliz 36 °C-raino berotu eta ondoren adiabatikoki ase.
- B. Bigarrenez erresistentzien bidez berotu.
- C. Ur likido beroarekin, 50 °C-an, nahasi egiten da eta jarraian ur-lurrunarekin, 220 °C-an. Nahaste horien baldintza bakarra hauxe da: bai nahaste batean bai bestean gehitzen den ura berdina izatea.

Instalazio osoan zehar doan aire lehorra 2000 kg/h-koa dela kontuan izanik:

1. Irudikatu instalazioaren eskema eta prozesu guztiak Mollier diagraman, puntuak zehatz-mehatz adieraziz.
2. Lortu aireari eman behar zaion potentzia (kcal/h) eta gehitu behar zaion ura (kg/h).
3. Lurruna erabiltzerik ez balego, lehengo ur likidoa (50 °C-an) baino ezin izango genuke erabili. Zehaztu prozesu berria Mollier diagraman eta kalkulatu bigarren puntuan eskatzen dena.

Klimatizazio-instalazio horren berokuntza-betebeharrak asetzeko, hozte-makina bat erabiltzen da. Hozte-makina horrek termoponpa-lana egiten du, eta lortu behar duen potentziak airea berotzeko kalkulatu duzuen potentziaren adinakoa behar du izan.

Hozte-zikloko jariakin hozgarria amoniakoa da; konpresio bikoitza du, tartean hozten dela, eta 2 atm-tik 20 atm-ra tartean lan egiten du.

Lurrungailuko irteeran amoniakoa lurrun ase da, eta konpresore alternatibo batera doa (errendimendu adierazia, 0,95); lurruna 6 atm-raino konprimitzen da, eta berriro lurrun ase izan arte hozten. Gero, errendimendu isoentropiko 0,95 duen konpresore zentrifugo batera doa kondentsagailuaren presioraino. Kondentsagailutik presio horri dagokion tenperatura baino 5 °C hotzago irteten da, eta zikloa ixteko ijezketa-balbulara eta -lurrungailura.

Bi konpresoreen errendimendu mekanikoa 0,98 dela kontuan harturik:

4. Irudikatu instalazioaren eskema eta adierazi P-h diagraman puntuak eta prozesua.
5. Kalkulatu jariakin hozgarriaren emaria (kg/h) eta instalazioaren efikazia.

### **Aire hezea + Hozte-makinak 5**

Hozte-instalazio bat diseinatu behar da  $-35\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an  $1000\text{ Frig/h}$  produzitzeko. Horretarako lurrungailuan zehar karbono dioxidoa  $-40\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an lurruntzen da. Jariakin hori konpresio bakarreko ziklo baten barruan dago, etekin isoentropikoa  $0,95$  izanik. Kondentsazioa  $5\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an gertatzen da, jariakin hozgarri gisa amoniakoa erabiliz, zeina  $-5\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an lurruntzen baita. Amoniakoa beste hozte-ziklo baten barruan dago, konpresio bakarrekoa hori ere, etekin isoentropikoa  $0,9$  izanik, eta kondentsazioa  $25\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an gertatzen da kasu horretan. Bi zikloetan kondentsazioak osoak dira, baina azpihozketarik gabe, eta instalazio osoa airez hoztu nahi dugu.

Eskatzen da:

1. Egin instalazio osoaren irudia.
2. Marraztu zikloen puntuak (P,h) irudietan.
3. Irudikatu (P,h) eta (T,S), ziklo bata bestearen gainean adierazita.
4. Lortu bi jariakinen emari masikoen arteko erlazioa.
5. Kalkulatu aireak atera behar duen potentzia termikoa.

Airea  $30^{\circ}\text{C}$ -an dago eta % 25eko hezetasun erlatiboa du. Lehenengo  $-6^{\circ}\text{C}$ -an hozten da, eta behin izotza kenduta dagokion bero-trukagailuan sartzen da, amoniakorekin izan behar duen jauzi termikorik txikiena  $5\text{ }^{\circ}\text{C}$ -koa dela.

6. Kalkulatu instalazioa hozteko zenbat aire heze behar den (Irudian airearen eraldaketak marraztu).

### **Aire hezea + Hozte-makinak 6**

Hozte-instalazio batek 2000 Frig/h produzitu behar ditu lehenengo ganberan. Ganbera horretan produktuak  $-10\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an daude. Jariakin hozgarri  $\text{NH}_3$ -a erabiltzen da. Badago beste ganbera bat, izotza gordetzekoa,  $-20\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an. Eta bi lurrungailuetan dagoen jauzi termikorik txikiena  $10\text{ }^{\circ}\text{C}$  da.

Bigarren ganberatik irteten den jariakina lurrun ase da; zikloa bakuna da, eta konprimagailuaren errendimendu isoentropikoa, 0,95. Konprimagailutik 10 atm-n irten, kondentsagailuan sartu eta hortik  $5\text{ }^{\circ}\text{C}$  azpihozturik irteten da. Ijezketa-balbulara doa, lehenengo hozte-efektua sortzen du, eta lurrunak 0,3 titulua lortzen du; eta amaitzeko bigarren balbulatik bigarren ganberara sartzen da.

Honako hau eskatzen da:

1. Egin instalazioaren eskema, eta irudikatu zikloa P-h diagraman. Defini itzazu zikloaren puntu garrantzitsuenak diagrametan.
2. Lortu hozte-jariakinaren emaria kg/h-tan eta hozte-makinaren efikazia, kontuan izanda konpresorearen errendimendu mekanikoa 0,9 dela.

### **Aire hezea + Hozte-makinak 7**

Konpresio bikoitzeko eta espantsio bakarreko hozte-makina batek 50000 Frig/h-ko potentzia dauka, eta  $\text{NH}_3$ -a erabiltzen du jariakin hozgarri gisa. Hozgarriak  $-20\text{ }^\circ\text{C}$ -tik  $40\text{ }^\circ\text{C}$ -ra bitartean egiten du lan.

Lurruna lurrungailutik  $5\text{ }^\circ\text{C}$  gainberotua irteten da, eta lehenengo konprimagailura sartzen da. Konprimagailu horren errendimendu isoentropiko eta mekanikoak 0,87 eta 0,9 dira, hurrenez hurren, eta 6,1 atm-raino konprimitzen du. Ondoren, jariakina korrontearen kontra lan egiten duen bero-trukagailu batera sartzen da. Trukagailu horren efektu erabilgarria ura berotzea da, eta urak hartzen duen potentzia 5860 kcal/h da. Lurrunak, gero, beste konprimagailura sartu (errendimendu isoentropikoa eta mekanikoak 0,85 eta 0,9 dira, hurrenez hurren), urez hoztutako kondentsagailuaren presioraino konprimitu, eta  $5\text{ }^\circ\text{C}$  gainasea irteten da kondentsagailutik.

Egin beharrekoak:

1. Egin ezazu instalazioaren eskema.
2. Irudikatu zikloa T-s eta P-h diagrametan. Defini itzazu zikloaren puntu garrantzitsuenak diagrametan.
3. Lortu amoniakoaren emaria (kg/h).
4. Kalkulatu instalazioaren hozte-efikazia.



### **Aire hezea + Hozte-makinak 8**

Hozte-instalazio bat diseinatzean kontuan hartu dira tenperatura bitan lan egiten duten bi ganberaren hozte-beharrei aurre egiteko potentziak. Jariakin hozgarri gisa amoniakoa erabiltzea erabaki da.

Amoniako guztia  $10\text{ }^{\circ}\text{C}$  azpihozturik irteten da kondentsagailutik; ijezketa-balbulara doa, eta handik zati bat  $0\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an dagoen lurrungailura igarotzen da. Lurrungailu horretatik amoniakoa lurrun ase bihurturik irteten eta konprimagailu alternatiboan  $15\text{ atm}$ -raino konprimitzen da. Beste zatia berriro ijeksi egiten da, eta  $-20\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ko lurrungailura sartzen da. Lurrun ase bihurturik irteten, eta beste konprimagailuan sartzen da —hori ere alternatiboa—. Bi konprimagailuetatik irteten diren lurrunak nahasi egiten dira kondentsagailuan sartu bezain laster.

Beheko lurrungailuaren potentzia  $25000\text{ Frig/h}$  da, alegia, goiko lurrungailuaren potentziaren  $2/3$ . Konprimagailuen errendimendu adierazia eta mekanikoa  $0,89$  eta  $0,95$  direla kontuan izanda:

1. Egin hozte-instalazioaren eskema eta irudikatu amoniakoaren P-h diagraman.
2. Lortu amoniako-emariak bi lurrungailuetan (kg/h).
3. Kalkulatu potentzia mekaniko osoa (kW).
4. Lortu kondentsagailuan ateratako potentzia termikoa (kW).
5. Kalkulatu hozte-makinaren efikazia.

### **Aire hezea + Hozte-makinak 9**

Jo dezagun konpresioa eta espantsioa bikoitzak dituen hozte-makina bat dugula, jariakin hozgarri gisa amoniakoa erabiltzen duena eta 220000 Frig/h-ko potentzia  $-30\text{ }^{\circ}\text{C}$ -an produzitzeko ahalmena duena.

Jariakina kondentsagailutik  $5\text{ }^{\circ}\text{C}$  azpihozturik irteten da, ijetzi, eta trukagailu-burbuilagailu batera doa, presioa 7,5 atm izanik. Burbuilagailutik amoniakoak likido ase bihurturik irten eta berriro ijetzi egiten da, lurrungailuaren presioa lortu arte. Lurrungailutik  $6\text{ }^{\circ}\text{C}$  gainberotua irten eta lehenengo konprimagailura doa, aipatutako burbuilagailuaren presioraino eramaten duena. Konprimagailuaren errendimendu isoentropikoa eta mekanikoa 0,97 eta 0,86 dira, hurrenez hurren.

Bestalde, burbuilagailutik amoniakoak lurrun ase bihurturik irten eta beste konprimagailura (errendimendu adierazia: 0,95; eta mekanikoa: 0,87) igarotzen da. Azken horretan 18 atm-ra konprimitzen da.

Egin beharrekoak:

1. Egin instalazioaren eskema, eta irudikatu zikloa T-s diagraman.
2. Lortu beheko eta goiko konprimagailuetako amoniako-emariak (kg/h).
3. Kalkulatu bi konprimagailuen potentzia mekanikoa (kW) eta kondentsagailuaren potentzia termikoa (kcal/h).
4. Kalkulatu efikaziak, bai hozte-makinarena bai termoponparena.

### **Aire hezea + Hozte-makinak 10**

Konpresio bikoitza duen hozte-makina batek R-12 hozgarria erabiltzen du, eta lurrungailu bi ditu, nagusia eta laguntzailea. Hozkarriak betetzen duen zikloa hauxe da:

Lurrungailu nagusitik 1 atm-n irteten da,  $X = 1$  tituluarekin, eta 2 °C gainberotu egiten da bero-trukagailu batean; ondoren, behe-konprimagailura doa. Konprimagailu horren errendimendu isoentropikoa eta mekanikoa 0,9 eta 0,95 dira, hurrenez hurren, eta 3 atm-ra konprimatzen du hozgarria.

Bigarren bero-trukagailuan lurrun asean lortu arte hoztu, eta goi-konprimagailura doa 10 atm-raino, errendimendu isoentropikoa eta mekanikoa 0,85 eta 0,9 direla, hurrenez hurren.

Kondentsagailutik irten eta, lehenengo bero-trukagailuan lortzen duen azpihozketa gain, 3 °C-ko azpihozketa lortzen da.

Lehenengo ijezketa-balbulatik tarteko presioan irteten da, eta lurrungailu laguntzailean sartzen; han,  $x = 0,6$  titulua lortu arte berotzen da, eta lehenengo hozte-efektua sortzen du.

Bigarren ijezketaren ondoren lurrungailu nagusian sartzen da, eta 10000 Frig/h-ko potentzia lortzen da.

Egin beharrekoak:

1. Egin ezazu instalazioaren eskema.
2. Irudikatu zikloa P-h eta T-S diagrametan.
3. Kalkulatu bi bero-trukagailuen potentziak.
4. Lortu bi lurrungailuen potentziak.
5. Kalkulatu potentzia mekaniko osoa.
6. Lortu kondentsagailuan utzitako potentzia.
7. Adierazi COPak, hozte-makinarena eta termoponparena.

## **2.- EMAITZAK**



### **Eroankortasun termikoa 1**

1.  $q = 648 \text{ W/m}^2$
2.  $\lambda_A = 0,72 \text{ W/m K}$  ;  $\lambda_B = 0,86 \text{ W/m K}$
3.  $T_{\max} = T_1 = 589,5^\circ\text{C}$
4.  $\alpha_i = 4,97 \text{ W/m}^2 \text{ K}$  ;  $\alpha_o = 14,4 \text{ W/m}^2 \text{ K}$

### **Eroankortasun termikoa 2**

1.  $\theta_{x=0,2} = 444,5 \text{ }^\circ\text{C}$ .  
 $\theta_{x=0,8} = 403,2 \text{ }^\circ\text{C}$ .  
 $\theta_{x=0,59} = 344,9 \text{ }^\circ\text{C}$ .
2.  $\dot{q}_{x=0,2} = 7,853 \text{ W/m}^2$   
 $\dot{q}_{x=0,8} = -12,306 \text{ W/m}^2$

### **Eroankortasun termikoa 3**

1.  $t = 4,5 \text{ min}$ .
2.  $\theta_s = 764 \text{ }^\circ\text{C}$ .

### **Eroankortasun termikoa 4**

1.  $e = 10 \text{ cm}$ .
2.  $\theta_1 = -0,1 \cdot \left( \frac{25 \cdot x^3}{6} + \frac{125 \cdot x^2}{2} \right) + 98,33$  *x metrotan sartuta*  
 $\theta_2 = -150 \cdot x + 370$   
 $\theta_{x=0} = 98,33 \text{ }^\circ\text{C}$ .  
 $\theta_{x=2} = 70 \text{ }^\circ\text{C}$ .  
 $\theta_{x=2,1} = 55 \text{ }^\circ\text{C}$ .

**Eroankortasun termikoa 5**

1. A)  $t = 39,6 \text{ s}$   
B)  $t = 315 \text{ s}$
2. A)  $\theta_0 = 20 \text{ }^\circ\text{C}$ .  
B)  $\theta_0 = 206,35^\circ\text{C}$ .

**Eroankortasun termikoa 6**

- $$\theta_1 = -x^2 + 57,5$$
1. *x metroan sartuta*  
$$\theta_2 = -\frac{x^3}{6} + \frac{3 \cdot x^2}{2} - 7,5 \cdot x + 62$$
  2.  $\dot{q} = 75 \text{ W/m}^2$

**Eroankortasun termikoa 7**

1. A)  $\bar{\alpha} = 26,25 \text{ kcal/h m}^2 \text{ }^\circ\text{C}$   
B)  $\dot{q} = 1443,75 \text{ kcal/h m}^2$
2. A)  $\theta_s \cong \theta_a = 4^\circ\text{C}$   
B)  $q_p \cong q_i \cong 546,94 \text{ kcal/m}^2 \text{ hormako alde bakoitzetik}$

**Eroankortasun termikoa 8**

- $$\theta_A = 1,25 \left( \frac{x^3}{6} - \frac{x^2}{2} \right) + 51,03$$
1. *x metroan sartuta*  
$$\theta_B = -1,25x + 51,87$$
  
$$\theta_C = 2,5 \left( \frac{x^3}{6} - \frac{3 \cdot x^2}{2} \right) + 8,75x + 43,5$$
  2.  $\dot{q} = 116 \text{ W/m}^2$

**Eroankortasun termikoa 9**

A. -  $\bar{\alpha} = 4,57 \text{ kcal} / \text{h m}^2 \text{ } ^\circ\text{C}$   
 $\theta_p = 70 \text{ } ^\circ\text{C}$

B. -  $v = 27 \text{ m/s}$   
 $\dot{q} = 276,36 \text{ kcal} / \text{h m}^2$

**Eroankortasun termikoa 10**

1.  $\theta_A = 100 \cdot x + 145$   $x$  metroan sartuta

$\theta_B = 50/3 x^3 - 100 \cdot x^2 + 200 \cdot x + 145$   $x$  metroan sartuta

2.  $\theta_{x=-1} = 45 \text{ } ^\circ\text{C}$ ;  $\theta_{x=0} = 145 \text{ } ^\circ\text{C}$ ;  $\theta_{x=2} = 278,33 \text{ } ^\circ\text{C}$

3.  $\dot{q} = 4000 \text{ W/m}^2$



### **Konbekzioa 1**

1.  $\bar{\alpha} = 20,7 \text{ W/m}^2\text{ }^\circ\text{C}$
2.  $v = 2,96 \text{ m/s}$
3.  $\dot{Q}_{\text{Konbekzio}} = 2894,5 \text{ W}$
4.  $\bar{\alpha}' = 3,5 \text{ W/m}^2\text{ }^\circ\text{C}$
5.  $\dot{Q}'' = 6716 \text{ W}$

### **Konbekzioa 2**

1.  $\bar{\alpha} = 14,5 \text{ W/m}^2\text{ }^\circ\text{C}$
2.  $\theta_s = 200 \text{ }^\circ\text{C}$
3.  $\bar{\alpha}' = 1773 \text{ W/m}^2\text{ }^\circ\text{C}$

### **Konbekzioa 3**

1.  $\bar{\alpha}_i = 3285 \text{ W/m}^2 \text{ K}$
2.  $L = 4,44 \text{ m}$
3.  $\theta_{Is} = 70,3 \text{ }^\circ\text{C}$

### **Konbekzioa 4**

1.  $\dot{Q} = 3,02 \text{ kW}$
2.  $\theta_{si} = 20,5 \text{ }^\circ\text{C}$
3.  $\dot{Q}' = 508,3 \text{ W}$

### **Konbekzioa 5**

$$S = 4,81 \text{ m}^2$$

### **Konbekzioa 6**

1.  $S = 2,84 \text{ m}^2$

2.  $\varepsilon = 0,52$

### **Konbekzioa 7**

1.  $\frac{d^2\theta}{dx^2} - \frac{4\alpha}{\lambda D}(\theta - \theta_a) + \frac{\dot{q}}{\lambda} = 0 \Rightarrow \theta = 220 - 50[e^{\sqrt{6}\cdot x} + e^{-\sqrt{6}\cdot x}]$

2.  $\theta_{(x=-0,5)} = \theta_{(x=0,5)} = 35,1 \text{ }^\circ\text{C}$

3.  $\bar{\theta} = 93,05 \text{ }^\circ\text{C}$

4.  $v = 3,8 \text{ m/s}$

5.  $\dot{Q}_x = 299,1 \text{ W}$

### **Konbekzioa 8**

1.  $Q_T = 2356,4 \text{ W}$

2.  $Q_T = 1255 \text{ W}$

3.  $Q_{\text{konbekzioz}} = 1644,7 \text{ W}$

$Q_{\text{erradiazioz}} = 355,3 \text{ W}$

### **Konbekzioa 9**

$Q = 104,4 \text{ W/m}$

### **Konbekzioa 10**

1.  $\alpha_i = 1,96 \text{ W/m}^2\text{ }^\circ\text{C}$

$\alpha_o = 3,71 \text{ W/m}^2\text{ }^\circ\text{C}$

2.  $q_{\text{konb}} = 5,4 \text{ W/m}^2$

3.  $T = 103,7 \cdot x + 18,04 \quad T_{x=0,2} = 38,8^\circ\text{C}$

**Erradiazioa + Errekuntza 1**

$$\dot{Q}_{1\leftrightarrow 2} = 12370 \text{ W}$$

**Erradiazioa + Errekuntza 2**

$$\dot{q}_{1\leftrightarrow 2} = 125 \text{ kW/m}$$

**Erradiazioa + Errekuntza 3**

1.  $T_3 = 1160 \text{ K}$
2.  $\dot{q}_{1\leftrightarrow 2} = -9825 \text{ W/m}^2$
3.  $R = \frac{\dot{q}_{1\leftrightarrow 2}}{\dot{q}'_{1\leftrightarrow 2}} = 0,112$


**Erradiazioa + Errekuntza 4**

$$\frac{Q_{1\leftrightarrow 2A}}{Q_{1\leftrightarrow 2B}} = 1,639$$

$$\frac{Q_{1\leftrightarrow 2A}}{Q_{1\leftrightarrow 2C}} = 1,977$$

**Erradiazioa + Errekuntza 5**

1.  $\dot{q}_2 = 369,5 \text{ kW} / m$
2.  $F_{11} = 0,36$      $F_{12} = 0,32$      $F_{13} = 0,32$   
 $F_{21} = 0,5$      $F_{22} = 0$      $F_{23} = 0,5$   
 $F_{31} = 0,5$      $F_{32} = 0,5$      $F_{33} = 0$
3.  $\dot{q}'_2 = 369465 \text{ kW} / m$



### Erradiazioa + Errekuntza 6

$$V_{CO_2} = 2,185 \text{ Nm}^3 / \text{Nm}^3 \text{ Erregai}$$

$$V_{CO} = 0,209 \text{ Nm}^3 / \text{Nm}^3 \text{ Erregai}$$

$$V_{H_2} = 0,209 \text{ Nm}^3 / \text{Nm}^3 \text{ Erregai}$$

$$V_{CH_4} = 0,104 \text{ Nm}^3 / \text{Nm}^3 \text{ Erregai}$$

$$V_{H_2O} = 3,08 \text{ Nm}^3 / \text{Nm}^3 \text{ Erregai}$$

$$V_{O_2} = 0,655 \text{ Nm}^3 / \text{Nm}^3 \text{ Erregai}$$

$$V_{N_2} = 17,586 \text{ Nm}^3 / \text{Nm}^3 \text{ Erregai}$$

### Erradiazioa + Errekuntza 7

$$P_{CO_2} = \frac{N_{CO_2}}{N_{KeTotalak}} \cdot P = \frac{N_{CO_2}}{N_{KeLehorrak}} \cdot \frac{N_{KeLehorrak}}{N_{KeTotalak}} \cdot P = \frac{0,093}{1,115} \cdot 112 \cdot 10^3 = \boxed{100,1 \text{ mbar}}$$

$$P_{N_2} = 1,2 \cdot 10^{-3} \cdot (100,1 + 326 + 123,3) = \boxed{650,6 \text{ mbar}}$$

edota

$$P_{N_2} = \frac{N_{N_2}}{N_{KeLehorrak}} \cdot \frac{N_{KeLehorrak}}{N_{KeTotalak}} \cdot P = \frac{0,604}{1,115} \cdot 1,2 \cdot 10^3 = 650,6 \text{ mbar}$$

### Erradiazioa + Errekuntza 8

- A.  $18780 \text{ W/m}^2$
- B.  $T_3 = 851,2 \text{ K}$  ;  $T_4 = 826,7 \text{ K}$  ;  $q_{1 \leftrightarrow 2} = 2446,7 \text{ W/m}^2$
- C.  $m = 1,91$

**Erradiazioa + Errekuntza 9**

1.  $m = 0,92$
2.  $\dot{Q} = 106,4 \text{ kW/m}$
3.  $\theta = 1217 \text{ }^\circ\text{C}$

**Erradiazioa + Errekuntza 10**

1.  $F_{11} = 0$                        $F_{12} = 0,167$                        $F_{1R} = 0,833$   
 $F_{21} = 0,005$                        $F_{22} = 0$                                $F_{2R} = 0,995$   
 $F_{R1} = 0,0079$                        $F_{R2} = 0,301$                        $F_{RR} = 0,691$
2.  $\dot{Q}_{1\leftrightarrow 2} \approx 8550 \text{ [W/m]}$
3.  $T_R = 732,2 \text{ K}$

**Aire hezea + Hozte-makinak 1**

3.  $\dot{m}_a = 0,72 \text{ kg}_{\text{Aire Lehor}}/\text{h}$   
 $\dot{m}_{\text{H}_2\text{O}} = 4,4 \cdot 10^{-3} \text{ kg}_{\text{lurrun}}/\text{h}$
4.  $\dot{Q}_1 = 3,40 \text{ kcal/h}$   
 $\dot{Q}_2 = 1,66 \text{ kcal/h}$

**Aire hezea + Hozte-makinak 2**

2.  $x_5 = 8,2 \text{ g}_{\text{H}_2\text{O}}/\text{kg}_{\text{Aire Lehor}}$      $h_5 = 12,4 \text{ kcal}/\text{kg}_{\text{Aire Lehor}}$      $q = 11,4 \text{ kcal}/\text{kg}_{\text{Aire Lehor}}$
3.  $\dot{m}_a = 0,89 \text{ kg}_{\text{Aire Lehor}}/\text{h}$      $\dot{m}_{\text{H}_2\text{O}} = 8,54 \text{ g}_{\text{H}_2\text{O}}/\text{h}$

**Aire hezea + Hozte-makinak 3**

2.  $\text{Pot} = 60,4 \text{ kW}$  ;  $\dot{m}_{\text{H}_2\text{O}} = 30,4 \text{ g/s}$
4.  $G_I = 0,0268 \text{ kg/s}$  ;  $G_{II} = 0,0088 \text{ kg/s}$
5.  $\text{Pot}_{\text{Konpresioa}} = 9,4 \text{ kW}$  ;  $\text{Pot}_{\text{Kondentsazioa}} = 47,3 \text{ kW}$

**Aire hezea + Hozte-makinak 4**

2.  $\text{Pot} = 21740 \text{ kcal/h}$  ;  $\dot{m}_{\text{H}_2\text{O}} = 20 \text{ kg/h}$
3.  $\text{Pot} = 23350 \text{ kcal/h}$
5.  $G = 77,95 \text{ kg/h}$  ;  $\varepsilon = 3,47$

**Aire hezea + Hozte-makinak 5**

4.  $G_{\text{CO}_2} / G_{\text{NH}_3} = 3,96 [-]$
5.  $\text{Pot}_{\text{NH}_3 \text{ kondentsadorea}} = 1,713 \text{ kW}$

**Aire hezea + Hozte-makinak 6**

2.  $\dot{m}_{\text{NH}_3} = 38 \text{ kg/h}$      $\varepsilon_F = 2,47$

**Aire hezea + Hozte-makinak 7**

3.  $\dot{m}_{NH_3} = 193 \text{ kg / h}$

4.  $\varepsilon_F = 2,44$

**Aire hezea + Hozte-makinak 8**

2.  $\dot{m}_A = 139,33 \text{ kg / h}$   
 $\dot{m}_B = 95 \text{ kg / h}$

3.  $\dot{W}_{TOTALA} = 18,5 \text{ kW}$

4.  $\dot{W}_{KOND} = 88,2 \text{ kW}$

5.  $\varepsilon_F = 3,92$

**Aire hezea + Hozte-makinak 9**

2.  $\dot{m}_B = 791,36 \text{ kg / h}$

3.  $\dot{W}_{KONP\_A} = 48,91 \text{ kW}$   
 $\dot{W}_{KONP\_B} = 73,72 \text{ kW}$   
 $\dot{W}_{KOND} = 309455 \text{ kcal / h}$

4.  $\varepsilon_F = 2,08$   
 $\varepsilon_T = 2,92$

**Aire hezea + Hozte-makinak 10**

3.  $\dot{Q}_1 = 464 \text{ W}$  ;  $\dot{Q}_2 = 1365 \text{ W}$

4.  $\dot{Q}_{nagusia} = 11600 \text{ W}$  ;  $\dot{Q}_{laguntzailea} = 10914 \text{ W}$

5.  $\dot{W}_{OSOA} = 12797 \text{ W}$

6.  $\dot{Q}_{kond} = 32782 \text{ W}$

7.  $\varepsilon_F = 1,76$   
 $\varepsilon_T = 2,56$